



**Klimari
buruzko
herritarren
batzarrak
diseinatzeko,
antolatzeko eta
errazteko gida**

Egileak: Conchi Piñeiro eta Laura Lucio González (Tangente)

Koordinazioa: Maria José Sanz (BC3)

Honako hauen lankidetzarekin:

- **Ofelia Florencia Romeo**
Batzarkidea. Klimari buruzko Herritarren Batzarra
- **Teresa Arnal**
Batzarkidea. Klimari buruzko Herritarren Batzarra
- **Gonzalo Saratxaga**
Batzarkidea. Klimari buruzko Herritarren Batzarra
- **Agustin Sánchez Guardon**
Batzarkidea. Klimari buruzko Herritarren Batzarra
- **Marta Torres Gunfaus**
Aditua. Klimari buruzko Herritarren Batzarra
- **Irene Diez**
Aditua. Klimari buruzko Herritarren Batzarra
- **Paco Heras**
Aditua. Asamblea Ciudadana para el Clima
- **Eva Saldaña**
Aditua. Klimari buruzko Herritarren Batzarra
- **Raquel Clemente Pereiro**
Erraztailea. Klimari buruzko Herritarren Batzarra
- **Jorge Serrano**
Erraztailea. Mallorcako Asamblea Ciudadana pel Clima
- **Maria Jesús Barceló**
Erraztailea. Mallorcako Asamblea Ciudadana pel Clima
- **Neus Ramís**
Erraztailea. Mallorcako Asamblea Ciudadana pel Clima
- **Eva Prado Encinas**
Batzarkidea. Asamblea Ciudadana pel Clima Ajuntament de Barcelona
- **Gerard Lillo**
Erraztailea. Asamblea Ciudadana pel Clima Ajuntament de Barcelona
- **Oriol Agulló**
Erraztailea. Bartzelonako Asamblea Ciudadana pel Clima
- **Naiara Goia**
Erraztailea. Gipuzkoako Klimari buruzko Batzarra

Pertsona horiek guztiak parte hartu dute Gida hau egiteko 2023ko maiatzean garatu ziren elkarrizketetan.

Era berean, proiektuaren esparruan garatu diren hausnarketak ere kontuan hartu dira.

Aurkibidea

OR. KAPITULUA

04 **1. Testuingurua**

05 **2. Zer egitura du Gidak?**

06 **3. Zer da Klimari buruzko Herritarren Batzar bat?**

09 **4. Zer helburu ditu Klimari buruzko Herritarren Batzar batek?**

12 **5. Nola osatzen da Klimari buruzko Herritarren Batzar baten Gobernantza?**

15 **6. Zer gako daude Klimari buruzko Herritarren Batzar bat diseinatu eta gauzatzeko?**

24 **7. Nola bermatzen da ezagutza herritarrentzat eskuragarri dagoela?**

26 **8. Nola egiten dira gomendioak?**

28 **9. Nola adosten dira gomendioak?**

30 **10. Nola bermatzen da batzarkideen irisgarritasuna, inklusioa eta ongizatea?**

33 **11. Nola ematen dugu Batzarreko prozesuen eta emaitzen berri?**

34 **12. Nola egiten dugu Batzarreko prozesuen eta pertsonen jarraipena?**

35 **13. Nola erraztu Klimari buruzko herritarren batzar bat?**

40 **14. Zer teknika eta tresna daude Klimari buruzko herritarren batzar bat errazteko?**

54 **15. Bibliografia**

55 **16. Eranskinak**

1. Testuingurua

Azken urteetan, klima-krisia izan da agenda politiko batzuen gai garrantzitsuenetariko bat, bai nazio-mailan, bai mundu-mailan. Gai erabakigarri honi buruzko eztabaida-prozesuak sortzen hasi dira eta herrialde batzuetan herritarren batzarrak egin dira klima-larrialdiari nola erantzun eztabaidatzeko; herrialde horien artean daude [Frantzia](#), [Erresuma Batua](#), Irlanda, [Eskozia](#), Alemania edo Danimarka.

Testuinguru honetan, [Klimari buruzko Herritarren Batzarra](#) demokrazia deliberatiboan esperientzia aitzindaria da estatu-mailan, eta Klima Aldaketaren Legeak babesten du ([TED/1086/2021 Ministro-Agindua](#), irailaren 29koa). Horren agintaldian, 2021eko abenduan hasi eta 2022ko abenduan amaitu zenean, gomendioak landu dira, «[klima aldaketari dagokionez, bidezkoagoa eta seguruagoa den Espainia lortzeko](#)», eta gomendio horiek Gobernuari eta Kongresuari aurkeztu zaizkie. Halaber, gomendioak Gobernu Autonomikoei, Udalerrien Federazioari eta beste gizarte-eragile batzuei aurkeztu zaizkie.

Klimari buruzko Herritarren Batzarra diseinatzeko, inguruko herrietan garatu diren eztabaida-esperientziak aztertu dira, bai eta ELGAK eztabaida-prozesuetarako garatu dituen jardunbide egokiak ere, zeinak kontuan hartu diren Espainiaren kasuan.

Estatu-mailan egin den [Klimari buruzko Herritarren Batzarrak](#) gain, beste batzar batzuk ere egin dira maila desberdinetan, hala nola Balear Uharteetan, Bartzelonan eta Gipuzkoan.

Gida honek modu erraz eta eskuragarrian garatzen ditu Klimari buruzko Herritarren Batzarrak errazteko ekintzak, metodologia eta beste elementu batzuk. Elementu nagusi gisa, estatu-mailan egindako Klimari buruzko Herritarren Batzarra du abiapuntu, testuinguru geografiko berean maila desberdinetan garatu diren beste batzarren esperientziekin batera: [Bartzelonako Asmblea Ciudadana pel Clima](#), [Mallorcako Asmblea Ciudadana pel Clima](#) eta [Gipuzkoako Herritarren Batzarra](#). Lehenengo biak klimari buruzkoak, eta hirugarrena orokorragoa, lehen sektoreari buruzkoa, klima-aldaketa barne hartuta.

Era berean, «To document, disseminate through the experts and follow up Spanish Citizens Assembly on Climate Change» proiektuaren esparruan 2022 amaieran eta 2023. urtean zehar Klimari buruzko herritarren batzarren harira egin diren ekitaldi desberdinetan garatu diren eztabaidatetatik ere edaten du.

2. Zer egitura du Gidak?

Gidak dokumentu nagusi bat du, eta bertan ematen dira gakoak, Klimari buruzko Herritarren Batzar bat diseinatu eta antolatzeko. Atal hauek jorratzen ditu:

- Zer da Klimari buruzko Herritarren Batzar bat?
- Zer helburu ditu?
- Nola osatzen da haren Gobernantza?
- Nola diseinatu eta antolatzen da Klimari buruzko Herritarren Batzar bat?
- Nola bermatzen da ezagutza herritarrentzat eskuragarri dagoela?
- Nola egiten dira gomendioak?
- Nola adosten dira gomendioak?
- Nola bermatzen da batzarkideen irisgarritasuna, inklusioa eta ongizatea?
- Nola ematen dugu prozesuen eta emaitzen berri?
- Nola egiten dugu Batzarreko prozesuen eta pertsonen jarraipena?
- Nola errazten dugu Klimari buruzko herritarren batzar bat?

Gainera, gidak eranskinak ditu; horiek fitxa formatua dute, eta Klimari buruzko Herritarren Batzar bat errazteko elementu nagusiak jorratzen dituzte, hala nola eskema-eredu bat, proposamen-fitxa eredu bat, eta eskema bat, zeinak Batzarraren faseak eta erabili beharreko teknika eta tresnak biltzen dituen.

3. Zer da Klimari buruzko Herritarren Batzar bat?

Klimari buruzko herritarren batzar bat **demokrazia deliberatiboaren** ariketa bat da. Hari esker, herritarren lagin adierazgarri batek klima-larrialdiari buruz eratu duen iritzia entzun daiteke, zeinak gizartean dauden interes guztiak islatzen dituen. Horren helburua da Gobernuari, Parlamentuari eta, oro har, gizarteari gomendioak eta/edo politika publikoetarako proposamenak igortzea.

Herritarren Batzarren gakoak (ELGA)

ELGAK, administrazio publikoko, gizarte zibileko eta akademiako profesional garrantzitsuen nazioarteko talde batekin elkarlanean, jardunbide egokien irizpideak argitaratu ditu, erabaki publikoak hartzeko eztabaida-prozesuetarako. Gidan zehar, gai hauetako batzuetan sakonduko dugu:

- 1. Agindua:** Zeregina argi eta garbi definitu beharko litzateke arazo publiko bati lotutako gai gisa.
- 2. Kontuak ematea:** Agintaritza arduradunak publikoki hartu beharko litzate konpromiso hauek: gomendioei erantzuteko edo dagokionean horien arabera jarduteko konpromisoa, bai eta gomendioak gauzatzeko aurrerapenak aldizka gainbegiratu eta horren berri emateko konpromisoa ere.
- 3. Gardentasuna:** Edozein pertsonak izan beharko luke sarbide erraza, prozesuari buruzko honako informazio hau lortzeko: haren helburua, diseinua, metodologia, kontratazioaren xehetasunak, adituak, gomendioak, agintarien erantzuna eta gauzatzearen jarraipena. Komunikazio publiko hobea izateak ikaskuntza publikorako aukerak areagotu beharko litzate, eta parte-hartze handiagoa sustatu.
- 4. Adierazgarritasuna:** Parte hartzaileak publiko orokorraren mikrokosmosa izan beharko lirateke; hori lortzeko, ausazko laginketa bat egin daiteke, eta, horrekin, hautaketa adierazgarri bat egin, taldea komunitatearen profil demografikoarekin bat datorrela bermatzeko.
- 5. Inklusioa:** Inklusioa bermatzeko lan egin beharko litzateke, adibidez, ordainsariak emanez, gastuak ordainduz eta/edo haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko prestazioaren edo ordainketak eskainiz.

6. **Ikaskuntza eta Ezagutza:** Parte hartzaileek eskura izan beharko lukete adituen froga eta ezagutza zehatz, egoki eta eskuragarrien aukera zabala, bai eta informazio gehigarria eskatzeko aukera ere.
7. **Hausnarketa eta eztabaida:** Taldekako eztabaidak esan nahi du puntu komunak bilatu behar direla, eta, horretarako, ikuspegi ugari arretaz eta aktiboki entzun, haztatu eta kontuan hartu behar dira, hartara, honako hauek bermatzeko: parte hartzaile bakoitzak hitz egiteko aukera izatea, formatuen nahasketa eta erraztasun balioduna.
8. **Denbora:** Kalitate handiko prozesuek gomendio informatuak sor ditzaten, komenigarria da parte hartzaileak gutxienez lau egun osoz aurrez aurre biltzea; izan ere, eztabaidarako denbora egokia behar da, parte hartzaileek ikasi, ebidentzia aztertu eta gomendio kolektiboak garatu ditzaten.
9. **Gobernantza:** Prozesuaren osotasuna zaintzeko, koordinazio-talde independente batek izan beharko luke haren zuzendaritzaren ardura.
10. **Pribatutasuna eta anonimotasuna:** Parte hartzaileen pribatutasuna errespetatu beharko litzateke, nahi ez den arretatik babesteko eta haien independentzia babesteko.
11. **Ebaluazioa:** Eztabaida-prozesuak printzipio hauen arabera ebaluatu beharko lirateke, ikaskuntza bermatzeko, etorkizuneko praktika hobetzen laguntzeko eta haien eragina ezagutzeko.

Onurak

Baldintza berdinetan garatzen diren eztabaidaguneek, hala nola batzarrek, hainbat onura dakartzate, hasiera batean pentsa edo ikus daitezkeenez gain.

Illo horretan, klima-aldaketaren aurrean proposamenak eraikitzeko batzar bat ezartzeak onurak hauek dakartza:

- Ikaskuntzak eta hausnarketak sortzen laguntzea, bai eta pentsamendu kolektiboa eraikitzen laguntzea ere, egin behar diren eraldaketa handietarako konponbideak bilatzeko.
- Gizarteak problematikari buruzko informazio egokia eta askotarikoa duenean, hari erantzuterakoan zer politika eta neurri babesteko prest dagoen hobeto ulertzea.

- Eragin positiboa du pertsonak demokraziarekin eta parte-hartzearekin duten harremanean, eta, horrek, konfiantza handiagoa dakar politikan, demokrazian eta partaidetza-prozesuetan.
- Efektu biderkatzailea du; izan ere, gizartean gertatzen ari diren aldaketei eta etorkizuneko egoera batzuei aurre hartzeko moduari buruzko eztabaida elikatzen du, eta demokraziaren kalitatea indartzen du, gobernantza-egitura berriekin.

Mailak

Herritarren batzarrak hainbat mailatan bultza daitezkeen prozesuak dira. Komeni da kontuan hartzea maila bakoitzean gai horri buruz dauden eskumenak. Hausnarketa horretarako, adibideak izan dira maila hauetan:

- Tokikoa (Bartzelona)
- Eskualdekoa (Balearrak, Gipuzkoa)
- Estatukoa (Espainia)

4. Zer helburu ditu Klimari buruzko Herritarren Batzar batek?

Uste dugu herritarren parte-hartze prozesu orok hiru helburu nagusi bete behar dituela. Horietako batek lortu nahi den **emaitzarekin** du zerikusia, beste bat emaitza hori lortzeko **prozesuari** lotuta dago eta, azkenik hirugarren helburu taldea **pertsonen** zaintzarekin lotuta egon beharko litzateke.

Lortu nahi den **emaitzari** dagokionez, Klimari buruzko Herritarren Batzar baten helburu nagusia da zehaztutako gaiari heltzeko moduari buruz **gomendio batzuk ematea**; orokorrean, klima-aldaketari buruzko politika publikoak definitzen lagundu nahi da, zeinak hainbat mailatan hartu beharreko estrategiak bideratzeko balioko duten. Kasu askotan, gomendio horiek ez zaizkie gobernuei eta administrazio publikoei bakarrik zuzentzen, beste eragile sozial batzuei ere zuzentzen zaizkie (enpresak, irakaskuntza- eta hezkuntza-sektorea, GKEak, etab.). Zentzu horretan, neurri zehatzen garapen gisa eta/edo klima-aldaketari aurre egiteko ikuspegi partekatuaren irismen gisa uler daiteke.

Baina prozesuak ere **potenzial pedagogiko** handia du bai parte hartzen dutenentzat, bai gizarte osoarentzat, baldin eta eztabaida maila sozialera iristea lortzen bada. Hori da batzarraren beste helburu orokorretako bat, zeinak ez duen arreta emaitzan jartzen, baizik eta **prozesuan**; beraz, hori ere kontuan hartu behar da. Pedagogiari dagokionez, klima-aldaketa ez ezik, demokraziaren partaidetza-tresnak ere aipatzen dira; kasu honetan, eztabaida-tresnak.

Batzar baten garapenean, bi helburu horien artean tentsioa sor daiteke, denbora-muga dela eta. Kalitatezko gomendioak lortzeak prozesuari kalte egin diezaioke; hain zuzen ere, denboraren presiorik sentitu gabe sakon hitz egiteko aukera ematen duen prozesua kaltetu daiteke, eta baliteke hori gogobetegarria ez izatea.

Azkenik, **pertsonen zaintzarekin** lotutako helburua ere funtsezkoa da eztabaida-prozesuak funtzionamendu egokia izan dezan.

Beraz, funtsezkoa da **argi izatea zer helburu** dauden eta zer jarraipen izango duen prozesuak, helburuak betetzen diren ikusteko.

Gida honetan jasotako esperientzia guztiak aitzindariak izan dira haien lurraldeetan, eta, beraz, lehen aipatutako helburuez gain, gogobetegarria izateko presio gehigarria ere ezarri da, etorkizunean etorriko diren beste batzar askotan lehenak izan daitezten.

Ilido horretan, Herritarren Batzar bat prestatzeko beharrezkotzat jotzen den alderdietako bat **itxaropenen kudeaketa da: zer lortu nahi dugu?** Galdera horren erantzuna aukera hauetako bat, edo batzuen konbinazioa, izan daiteke: gomendioak sortzea, herritarrak sentibilizatzea, demokrazia deliberatiboa bultzatzea, metodologia berritzaileak aplikatzea, batzarkideek esperientzia ona izatea eta prozesua bereganatzea, etab.

Lehenengo helburua, gomendioak sortzea, betetzeko, Herritarren Batzar batek **agindu** bati erantzuten dio, zeinak, era berean, helburu edo xede desberdinak izan ditzaketen, eta, horiek, gomendioen jomuga izan behar dira. Agindua argia izan behar da, galdera argi bat egin behar da **dilema** bati buruz. Dilemaren ideia funtsezkoa da. Klima-aldaketa bezalako gai konplexuei dagokienez, non trantsizioa ekologikoa ez ezik bidezkoa ere izan behar den, **gizartean dilema** bat dago; dilema horren oinarria da zeintzuk diren neurri aringarriak, egokitzapenak eta trantsizio justuak, zeinak inguruabarren mailan beharrezkoa den anbizioa batzen duten, eta gizarte osoaren onarpena duten.

Dilema definitzeko, kontuan hartu behar da **batzarrak haren inguruarekin duen harremana.** Beharrezkotzat jotzen da herritarren benetako premia bati erantzutea. Horretarako, beharrezkoa da, halaber, aldeztatik dilema bereganatzea, eta denbora behar da benetako konpromisoa lortzeko eta herritarren eta interes-taldeentzako aitortza lortzeko.

"Dilema" behar bezala formulatu behar da. Planteatutako dilemaren arabera, zenbait agindu mota daude. Aginduaren galdera garrantzitsua da; izan ere, zabalagoa edo mugatuagoa izan daiteke, eta aukera desberdinei lotutako onurak eta zailtasunak daude. Edozein kasutan, garrantzitsua da galderari eta haren baldintzatzaile posibleei buruzko gogoeta egitea.

» **Klimari buruzko Herritarren Batzarraren** kasuan, agindua Gobernuarena da, eta Klima Aldaketari buruzko Legeak babesten du, Ministro-Aginduan ezarritakoak. Agindu zabala zen, eta klima-neutraltasuna lortzeko eta gure erresilientzia hobetzeko gomendio batzuk adostea ekarri zuen. Horretarako, galdera honen inguruan eztabaida ezarri zen: *Espainia seguruago bat klima-aldaketaren aurrean, nola lortuko dugu hori?*

- » **Mallorcako Asmblea Ciudadana pel Climaren** kasuan, Parlamentu Autonomikoaren agindua ere zabala zen, eta epemuga argia zuen: *Zer egin behar dugu Balear Uharteetan 2030. urtea baino lehen klima-aldaketari heltzeko?*
- » **Bartzelonako Asmblea Ciudadana pel Climaren** kasuan, Udal-Gobernuaren agindua zabala zen: *Zer egingo zenuke klima-aldaketari aurre egiteko?*
- » **Gipuzkoak Herritarren Batzarraren** kasuan, Foru Aldundiaren agindua dilema sektorial batek inguratzen zuen, hain zuzen ere landa-ingurunearen eta klima-krisiaren arteko harremanak, eta egindako galdera hau izan zen: *Nola berma dezakegu nekazaritza-jarduera, klima-larrialdiari aurre egiteko?*

Estatu-mailako Klimari buruzko Herritarren Batzarraren kasuan sakonduz, galdera hain zabala izanik, gomendioak Gobernuari ez ezik, gizarte-eragileei eta maila desberdin askori ere zuzendu zitzaizkien (Europako politika, autonomia-erkidegoak, udalak, etab.). BOEn agindua argia eta mugatua bada ere, eta oinarria botere exekutiboarentzako eta legegilearentzako gomendioak egitea bada ere, batzarkideek gizarte osora zabaldu zuten, eta, horrela, hasierako planteamendua zabaldu zuten. Ildo horretan, gomendio bakoitzerako eragileak identifikatzea batzarrak berak egindako ekarpena da. Esperientzia horren ondorioz, kontuan har daiteke agindua haratago joan daitekeela, baldin eta dilema eta galdera nahiko zabalak badira.

Azkenik, prozesu horien **garapena zer esparrutan gertatzen den** erabakigarria da. Etorkizun demokratikoan horrelako prozesuak iraunkorrak izan daitezten eta instituzionaltasuna izan dezaten lortu nahi bada, horretarako baldintzak sortu behar dira. Horri esker, prozesuek irismen eta anbizio handiagoa ere izan dezakete. Espainiako batzarra Klima Aldaketari buruzko Legearen elementuetako bat da, eta, beraz, beste batzar batzuk egiteko aukera ematen duen lege-esparru baten babespean dago.

5. Nola osatzen da Klimari buruzko herritarren batzar baten Gobernantza?

Prozesuaren konplexutasunaren arabera antolatzen da Klimari buruzko Herritarren Batzar baten gobernantza; izan ere, prozesuen artean aniztasuna dago, batzuek gobernantza sofistikatuagoak dituzte, eta ez hain sofistikatuak besteek. Tokiko prozesuetan gobernantza-mailan konplexutasun handiagoa dagoela identifikatu da.

Gobernantza-egitura independente eta gardena eduki behar da, eta, hura osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak hautatzeko, kontuan hartuko da klima-aldaketarekin lotutako gaietan duten esperientzia edo ospea, hartara, aginduaren beharrei erantzuteko. Egitura horren helburua da prozesua sustatzen duen erakundearekiko prozesu autonomoa izan dadin zaintzea, eta gomendioak jasotzea espero du. Klimari buruzko Herritarren Batzarraren kasuan, erakunde hori Espainiako Gobernuak izan zen.

Jarraian, gidan aztertutako kasuen gobernantzaren hainbat adibide azalduko ditugu:

- **Klimari buruzko Herritarren Batzarrean** gobernantza honako hauek osatu zuten:
 - **Koordinazio panel independente bat:** batzarra abian jartzea eta laguntza logistikoa ematea errazteko koordinazio-organoa da.
 - **Aditu independenteen talde bat (GKEak barne hartzen dituenak)** kontsultarako, eta diziplina anitzeko, sektore anitzeko eta belaunaldi anitzeko ikuspegiarekin. Horri esker, klima-larrialdiaren eraginen eta konponbideen zeharkakotasunari heldu dakioke, zientzia, gizarte, ekonomia eta ingurumen ikuspuntutik abiatuta.
 - **Talde tekniko independente bat, parte hartzaileak hautatzeko.**
 - **Talde tekniko independente bat, erraztean espezializatua.**
 - **Talde tekniko independente bat, komunikazioaren kudeaketarako.**

- **Mallorcako Asmblea Ciudadana pel Climan** gobernantza honako hauek osatu zuten:
 - Koordinazio taldea.
 - Errazte taldea.
 - Zozketa zibikorako taldea.
 - Komunikazio taldea.
 - Talde instituzionala (Gobernua).

- **Bartzelonako Asmblea Ciudadana pel Climan** gobernantza honako hauek osatu zuten:
 - Udaleko hainbat talde politiko.
 - Hiri- eta klima-erakundeak.
 - 5 batzarkide. Klima-erakundeen eta herritarren arteko erlazio handiagoa

- **Gipuzkoako Herritarren Batzarrean** gobernantza honako hauek osatu zuten:
 - Talde Eragilea: Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, errazte taldeek eta eztabaida-prozesuetan adituek osatua.
 - Jarraipen-batzordea: bertan parte hartzen dute alderdi politikoetako ordezkariak eta interes-talde gehienek.
 - Edukien Batzordea (gaian adituek hainbat ezagutza identifikatu eta partekatzen dituzte).
 - Batzarkideak

Hemen jasotako esperientzietan, desberdintasun interesgarriak ikusten dira, eta guztiak dira garrantzitsuak.

Batzar batzuek haien gobernantzetan sartzen dituzte **talde politikoak**, eta horrek prozesuaren jasagarritasuna bermatzen du, indar politikoen zati batek gomendioak bereganatzen baitituzte. Edonola ere, politikarien konpromisoa behar da, ahal dela alderdi guztiena, ez soilik gobernuarena, proposamenak bere gain hartu ditzaten, eta gomendioak kontuan hartzeko prozesuari indarra eta jarraitutasuna eman diezaioten.

Batzar batzuek klima-aldaketarekin lotutako **gizarte-erakundeetatik** datozen aditu ez-akademikoak sartzen dituzte gobernantza-egituran. Klimari buruzko Herritarren Batzarrean, adibidez, **ingurumenaren aldeko GKEetako** adituak zeuden aditu independenteen taldean.

Halaber, nabarmentzekoa da kasu batzuetan gobernantza egituretan **batzarkideak** sartzen direla. Estatu mailan egindako Klimari buruzko Herritarren Batzarren kasuan, batzarkideek gobernantza-egituran parte hartzea Ministro-Aginduan jasota ez bazegoen ere, prozesuan zehar kontraste-taldea eratu zen izendapen soziokratikoko metodoaren bidez hautatutako batzarkideekin, eta, horrek, koordinazio-funtzio jakin batzuk bete zituen; era berean, beste batzar batzuetan batzarkideen ordezkariak egituran parte hartzen dute.

6. Zer gako daude Klimari buruzko Herritarren Batzar bat diseinatu eta gauzatzeko?

Antolaketa orokorra

Batzarra antolatzeko ezinbesteko uneak behar dira, ekitaldia arrakastatsua izan dadin, eta lortu nahi diren helburuak lortu ahal izateko. Horretarako, zereginak honako fase hauetan antolatu behar dira:

1. Ikuspegi partekatua talde gisa. Prestakuntzaren erronka nagusietako bat da taldeak lerrokatzea gai hauetan: batzarra bideratzeko modua, prozesuaren ikuspegia partekatzeko modua, eginkizun bakoitzaren funtzioei eta zereginei dagozkien zehaztasuna, eta batera lan egiteko modua.

Alde horretatik, koordinatzaileen, adituen eta erraztaileen arteko triangeluak oso ondo funtzionatu behar du.

Bai hasieran, bai jarraipenean, funtsezkoa da **taldeen eginkizunak bereiztea**:

- **Errazte taldea:** haren ardura dira eztabaida-prozesuaren diseinu metodologikoa eta erraztea.
- **Adituen taldea:** ikaskuntza eta ezagutza-premiak asetzen dituzte eztabaida garatu bitartean, eta gomendioak egiteko laguntzen dute, eskatzen zaienean informazioa emanaz, zalantzak argituz eta batzarkideei gomendioak antolatzen lagunduz; parte-hartzaileek proposatzen dituzte gomendioak egiteko oinarria osatzen duten ideiak.

Era berean, interesgarria da errazte taldeak jorratu beharreko gaiari buruzko ezagutza teknikoak izatea, eztabaidatu eta gomendioak prestatu bitartean sortu daitezkeen ñabardurak hobeto ulertzeko aukera ematen baitu.

Klimari buruzko Herritarren Batzarraren esperientzian oso interesgarria izan da errazte taldean pertsona askok klima-aldaketarekin lotutako gaiei buruzko ezagutza izatea. Bestalde, adituek ere bazuten nolabaiteko esperientzia errazte lanetan, eta horrek funtzionamenduan laguntzen zuen.

Prozesuari eta funtzioei buruzko ikuspegi partekatu hori lortzeko, eta, horrela, talde-lan egokia egin ahal izateko, garrantzitsua da gobernantza-egituran dauden lan-espazioak diseinatzea lantzea. Ildo horretan, interesgarria da **aditu-taldearen erraztaile** bat izatea pentsatzea: zer ahots dauden, zer balio eman dakioken taldearen aniztasunari, nola funtzionatzen duen, zer behar duten, zer parte-hartze maila duten adituek.

Era berean, garrantzitsua da gobernantza-egitura osatzen duten taldeen arteko koordinazio- eta jarraipen-bileren egutegia izatea, gutxienez bilera hauekin:

- Hasierakoak edo abiaraztekoak; lantaldea aurkezteko, funtzionamenduari, metodologiei eta edukiei begira protokoloak eta akordioak ezartzeko, komunikazio-kanalak definitzeko, prozesuaren inklusio eta irisgarritasun printzipioak eta neurriak definitzeko, eta abar;
- Parte hartzeko prozesuaren diseinua eta saio bakoitzeko jarduerak eta metodologiak bateratzekoa, bai eta prozesuan zehar eman beharreko materialak eta edukiak bateratzekoa ere;
- Ikasteko eta eztabaidatzeko informazio teknikoa eta ebidentziak emango dituzten aditu gehigarriak eta lekukoak definitzekoa;
- Saioen eta ekitaldien jarraipena eta ebaluazioa egitekoa;
- Gomendioak emateko ekitaldi presentzialak antolatze eta kudeatzeko bateratze-lana eta koordinazioa gauzatzekoa;
- Gorabeherak kudeatzeko berariazko bilerak.

2. Diseinu metodologikoa: Talde arduradunak batzarraren prozesu osoan garatu beharreko metodologia eta erraztasunak diseinatuko ditu. Diseinuak barne hartuko ditu:

- Bileretarako adituen proposamena, landu beharreko edukien eta ardatz tematikoen arabera;

- Bilera bakoitzean garatu beharreko egitura eta dinamikak (birtualak eta presentzialak);
- Parte-hartzaileentzat zein errazte taldearentzat beharrezkoak diren prestakuntza-jardueren diseinua.

Diseinua malgua izan behar da, eta testuingurura eta beharretara egokitu behar da. Etengabeko jarraipena egin behar da: berrikusi eta, behar izanez gero, eguneratu egin behar da, parte-hartzaileen ezaugarriak eta egindako bileren azterketa kontuan hartuta.

Metodologiaren eta erraztearen diseinuak, une oro jaso behar ditu parte-hartzaileen inklusioa, irisgarritasuna eta ongizatea, eta horretarako beharrezko neurriak integratu behar ditu.

Gobernantza-egiturak baliozkotu beharko du egituraren eta metodologiaren diseinua, bai eta proposatutako erraztearena ere.

3. Bileren programazio zehatza: Talde arduradunak bilera eta ekitaldi bakoitzaren programazioa garatuko du, egindako eta onartutako diseinuaren eta proposamenaren arabera; eskema eta kronograma zehatza garatuko ditu, eta jarduera bakoitzari giza baliabideak eta baliabide materialak esleituko dizkio. Horietan, erabili beharreko metodologiak eta erabili beharreko tresnak (digitalak edo presentzialak) ere jasoko dira, eta jarduera bakoitzaren arduradunak eta erantzuleak zehaztuko dira, baita saio bakoitza behar bezala garatzeko beharrezkoa den beste edozein informazio ere.

4. Plangintza eta antolaketa: Batzarraren bilerak abian jartzeko, behar diren eskakizun guztiak aldeztatik planifikatu eta antolatu behar dira. Hauek izan daitezke:

- Bilerak edo ekitaldiak garatzeko beharrezkoak diren materialak eta edukiak eta bilera edo ekitaldi horien produktuak prestatzea, egokitzea eta erraztea;
- Bilerei eta ekitaldiei lotutako dokumentazioa koordinatzea eta ematea; gonbidapenak, izena emateko inprimakiak eta bileren deialdiarekin lotutako beste material batzuk barne;

- Bilerak garatzeko espazio fisiko eta birtualen logistika koordinatzea eta kudeatzea (tipologiaren arabera), bai eta espazio horiek erabiltzeko beharrezkoak diren elementu eta materialen logistika ere;
- Bilerak garatzeko beharrezkoak diren euskarri, azpiegitura, tresna eta zerbitzuak antolatzea, kontratatzea eta martxan jartzen direla egiaztatzea;
- Bilerak garatzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta material guztiak koordinatzea eta kudeatzea;
- Batzarraren bilera guztiak egin ondoren, batzarrari buruzko dokumentazio guztia biltzea, bai eta txosten teknikoak eta prozesuaren laburpenak idaztea ere.

5. Ebaluazioa: helburuak lortu diren, gogobetetze-maila eta ekitaldiak prozesu eta produktu gisa duen kalitatea aztertzen dira.

Eztabaidetako bat bileren **presentzialtasunaren eta birtualtasunaren** abantaila eta desabantaila buruz izan da. Bi aukerek dituzte abantailak eta eragozpenak. Online bilerek parte hartzea ahalbidetzen diete bestela ezingo luketen pertsonaiei, nahiz eta beharrezkoa den diseinu jakin bat eta baliabideak izatea, mundu guztiarentzat eskuragarria izan dadin, erabiltzaileen gaitasun digitalak gorabehera. Aurrez aurreko bilerek beste alderdi batzuk ematen dizkiote elkarriketari, hala nola hurbiltasuna, hitzik gabeko hizkuntza, etab. eta, horiek, prozesua aberasten dute, nahiz eta bilera mota hauek baliabideen inbertsio handiagoa dakarten eta pertsona guztiak lekualdatu ahal izatea eskatzen duten. Errazagoa dirudi maila lokalagoetan lortzea.

Bai aurrez aurre, bai online, saioen artean lan egiteko tresnak erabil daitezke, hala nola Decidim online tresna, Klimari buruzko Herritarren Batzarrean erabili zena, eta bileren artean lan egiteko balio izan zuena.

Azken gogoeta bat hau da: online bileren eta bilera presentzialen konbinazio egokia bilatzea, bi aukeretatik onena izan dezakeena, eta lana islatzen joateko online tresnak izatea, ezagutza partekatzen laguntzen baitute.

Eztabaida-prozesuaren diseinu orokorra

Lehenik eta behin, diseinuak malgua eta testuingurura egokitua izan behar du. Testuinguruaren elementuetako bat batzarreko hizkuntza

da. Estatuko hizkuntza ofizialak sartu dira, aniztasunari erantzuteko irtenbide desberdinak dituzten lurraldeetan (euskara, katalana).

Diseinuan genero-ikuspegia, hiri eta landa dinamikaren ikuspegia eta abar ere sartu behar dira. Gai horiek sakon lantzen ditugu irisgarritasunari dagokionez, baina diseinuan bertan egon behar dira.

Klimari buruzko Herritarren Batzar baten **eztabaida-prozesuaren egitura orokorrak 5 fase nagusi** ezartzen ditu, ELGAren printzipioen arabera. Hala ere, fase horiek ez dira linealak edo elkarren segidakoak; izan ere, ikaskuntzak, hausnarketak eta eztabaidak etengabeko iterazio-prozesua osatzen dute batzarraren ibilbide osoan zehar. Aitzitik, bileretan zehar, fase horietakoren batek garrantzi handiagoa hartzen du eta bileraren mugarria da.

0 Fasea. Prestakuntza.

Fase honetan, batzarrean baliatu beharreko tresna teknologikoak erabiltzeko ezagutzak eta trebetasunak eskaintzen dira, bai eta parte-hartzeari eta eztabaidari buruzko ezagutzak eta trebetasunak ere, hala nola parte-hartze eraginkor eta enpatikorako gakoak, edo informazioa bildu eta itzultzeko gakoak, besteak beste. Gainera, fase honetan batzarkideen eta prozesuan lagunduko duen talde teknikoaren aurkezpena egiten da.

1. Fasea: Ikasketa eta ezagutza.

Eztabaidarako lehen urratsa ikasketa eta ezagutza dira, erantzun nahi den problematikari buruzko informazioa duen herritarrak behar baitira. Fase honetan, batzarraren partaidetza-prozesua, helburuak, irismena, faseak eta metodologia ezagutaraziko dira. Era berean, parte hartzaileek klima-aldaketarekin, eta horren kausa eta eraginekin lotutako funtsezko alderdi eta kontzeptuei buruz duten ezagutza bateratu nahi da. Adituen panelak egongo dira, gaiari buruzko hausnarketa eta ikaskuntza sortzeko, eta batzarkideek egindako galderei erantzungo diete. Halaber, lekukoak ere egon daitezke, klima-aldaketaren eraginei buruzko ebidentziak eta frogak eman ditzaten. Lekukoak interes-taldeak izan daitezke, edo klima-aldaketaren eraginen esperientzia bizi izan duten pertsonak. Batzarkideek jorratzen ari diren gaiei buruzko informazio orekatua jasoko dutela bermatu nahi da.

2. Fasea: Hausnarketa eta eztabaida.

Hausnarketa eta eztabaida fasea ikaskuntza- eta ezagutza-prozesuarekin batera doa, eta hausnarketan eta ezagutza kolektiboa sortzen laguntzen du. Adituek eta lekukoek erakutsitako ezagutzei eta ebidentziei buruzko eztabaida-prozesu bat sustatzen da, ezagutzak finkatzeko eta zalantzak argitzeko. Era berean, hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak gomendioak prestatzeko prozesua lagunduko du, eta harekin batera garatuko da; hori, parte hartzeko metodologiaren eta tresnen bitartez egingo da, gomendioak garatzeko ezarritako taldeetan. Horrek aukera ematen du, alde batetik, hobeto ulertzeko herritarrak zer politika eta neurri laguntzeko prest dauden, eta, bestetik, dagoen jarrera aniztasunetik abiatuta gaiari heltzeko, arazoari buruzko informazio zientifiko eta sozioekonomiko zehatzarekin, eta dauden soluzioetatik abiatuta.

3. Fasea: Gomendioak prestatzea.

Fase honetan, gomendio-proposamenak prestatu eta idatziko dira. Proposamen horiek parte hartzaileek garatuko dituzte, arloka edo gaika antolatutako taldeetan, eta arlo edo gai horiek Gobernantza Organoak, talde teknikoak eta batzarkideek ezarriko dituzte. Berrelikadura-mekanismoak ezarriko dira, beste talde batzuetako kideek gomendioak ezagutu eta iradokizunak egin ditzaten. Era berean, klima-aldaketaren eta politika publikoen arloko adituek berrelikadura emango dute proposamenen idazkerari eta kalitate teknikoari buruz, sistema politikoan eragina izan dezaten.

4. Fasea: Erabakiak hartzea.

Hasiera batean, parte-hartzaileekin batera zehaztuko da batzarrak erabakiak hartzeko izango duen sistema. Azken saioan, prozesuan sortutako proposamenak hartu direla berresten duten erabakiak hartuko dira.

5. Fasea: Gomendioen berri ematea eta jarraipena.

Batzarraren helburuak lortzeko azken fase gisa, lortutako proposamenak formalki entregatu behar zaizkie dagozkien erakunde publikoei. Halaber, proposamenak beste eragile sozial publiko eta pribatu batzuei aurkez dakizkieke. Gainera, garrantzitsua da erakunde eskudunen jarraipena egitea, gomendioak betetzen dituzten ikusteko. Jarraipena epe desberdinetan egitea gomendatzen da: 6 hilabete – 1 urte – 3 urte

Faseen **antolaketa** aldatu egin daiteke. Prestakuntza-faseari helduko dion bilera labur batekin hastea gomendatzen da. Ikaskuntza eta ezagutza fasea, Hausnarketa eta eztabaida fasea eta Gomendioak lantzeko fasea bilera berean edo desberdinetan garatu daitezke. Normalean, Erabakiak hartzeko fasea azken saioan egiten da, prozesuan sortutako proposamenak hartu direla berresten baitu.

Klimari buruzko Herritarren Batzarraren kasuan, faseak elkarren segidan garatu ziren bilera desberdinetan zehar. 0 Bilerak Prestakuntzarako izan zen, 1. eta 2. Bilerak Ikasketa eta ezagutzarako izan ziren, 3.a eta 4.a Hausnarketa eta eztabaidarako, 5.a Gomendioak prestatzeko eta 6.a Erabakiak hartzeko.

BATZARRAREN BILERAK



Mallorcako Asmblea Ciudadana pel Climaren kasuan, Ikasketa eta ezagutza fasea, Hausnarketa eta eztabaida fasea eta Gomendioak prestatzeko fasea bilera berean garatu ziren. Azken bileran gomendioak prestatzen bukatu zuten eta Erabakiak hartu ziren.

Jarraian bi eredu abantailak eta eragozpenak adierazi dira.

➤ **Faseak bilera desberdinetan garatzen** badira:

- Abantailak honako hauek dira: eremu guztien ikuspegi orokorra izateko aukera, informazioa asimilatzeke denbora, galderak eta zalantzak saioen artean ebaztea.
- Desabantaila da informazioaren eta gomendioak prestatzearen arteko denborak zehaztasun txikiagoa ekar dezakeela informazioaren atzerapenagatik.

➤ **Faseak bilera berean garatzen** badira:

- Abantaila da esparru batean zentratzeko eta horretan sakontzeko gaitasuna, bai eta arazoaren aurrean konponbideak sortzeko giroa ere, parte hartzaileentzat oso gogobetegarria dena.
- Desabantaila nagusia da bilera bakar batean informazio gehiegi jasotzen dela, eta informazioa bereganatetik eta proposamenak egitera azkar igarotzen dela, denbora gutxian pentsamendua eta dinamika aldatzea eskatzen baitu.

Eztabaida-prozesuaren edukiak

Batzarrean joratu beharreko edukiak zabalagoak edo gaika mugatuagoak izan daitezke; halaber, gaiak batzarkideek aukera ditzakete, edo Gobernantza-organoak defini ditzake.

Estatu-mailan egin zen **Klimari buruzko Herritarren Batzarren** kasuan, batzarra ospatu baino lehen **herritarrei kontsulta** bat egin zitzaie, jakiteko herritarrek zenbateko garrantzia ematen zieten Aditu Independenteen Taldeak aginduaren galderari heltzeko hautatu zituen gaiei, baita jasota ez zegoen gairen bat sartzeko aukera aztertzeke ere.

Ondoren, koordinazio-panelak bilerak antolatu zituen erraztaile-taldearekin eta Aditu Independenteen Taldearekin. Bilera horietan, herritarrei egindako kontsultaren emaitzekin lotutako ardatz tematiko espezifiko batzuk definitu ziren, zeinak **Bizitza eta Gizarte Arloen (BGA)** arabera multzokatu ziren; halaber, ardatz horiek parte

hartzaileen bizi-esperientzian eta egunerokotasunean integratu ziren, eztabaidak errazteko. Horri esker, herritarrengandik hurbilago dauden kontzeptuak erabil daitezke, eta galdera nagusiari heltzeko beharrezkoak diren gizarte-aldaketetan esku-hartze handiagoa dagoela ikus daiteke.

Bizitza eta Gizarte Arloak izena eman zitzaaien, gomendioen xede izan daitezkeen **aldaketa maila edo eskala desberdinak** kontuan hartzeko: **pertsonala, antolakuntzako** (gizarte-eragile desberdinak kontuan hartuta), **komunitarioa, politiko/instituzionala**. Era berean, ikuspegi horrek terminologia adituago batetik eta ikuspegi sektorialetik aldentzea ahalbidetu zuen.

Bost Bizitza eta Gizarte Arlo definitu ziren, zeinek ardatz tematiko desberdinak biltzen dituzten:

- Kontsumoa
- Elikadura eta lurzorua erabilerak
- Komunitateak, osasuna eta zaintzak
- Lana
- Ekosistemak

Era berean, gai transbertsal batzuk ezarri ziren, zeinek bizitzako arlo desberdinak zeharkatzen dituzten:

- Garraioa/mugikortasuna
- Energia
- Hezkuntza

Bartzelonako Asmblea Ciudadana pel Climaren kasuan, batzarkide-ek 10 gaitik 3ri eman zieten lehentasuna.

Beste batzar batzuetan edukiak ikuspuntu sektorial batetik joratu dira. Adibidez, **Mallorcako Asmblea Ciudadana pel Climan** gai hauek joratu ziren: energia, garraioa eta mugikortasuna, ekosistemak eta biodibertsitatea.

7. Nola bermatzen da ezagutza herritarrentzat eskuragarri dagoela?

Ikasketa eta ezagutza fasean zehar, baina baita Hausnarketa eta eztabaida fasean ere, garrantzitsua da **ezagutza-aniztasuna** izatea, hots, bai gaian adituak direnen jakintzak, bai herritarrek beren esperientzian oinarrituta dituzten jakintzak edukitzea.

Adituen jakintzari dagokionez, garrantzitsua da adituen hautaketa argia egitea, momentuko fasearen edo une bakoitzean behar den informazioaren arabera. Horregatik, prozesuaren fase bakoitzerako aditu espezializatuak izatea iradokitzen da: klima-aldaketari buruzko ezagutza orokorra, erronkak, politika publikoen diseinua, itoguneak, proposamenak egitea... Era berean, garrantzitsua da profila non eta noiz beharko den aurreikustea, beharren eta adituen arteko parekatze hobek egiteko.

Adituak identifikatzean, **profilen eta ikuspegien aniztasuna** ziurtatu behar da, ikuspuntu guztiak ordezkaturik egon daitezen; era berean, garrantzitsua da informazioaren neutraltasuna ziurtatzea. Adituak hainbat arlotako ospe handiko pertsonak izan daitezke, hala nola klimaren, energiaren, biodibertsitatearen, ingurumenaren eta gizarte-eraldaketaren arlokoak, eta esparru akademikotik, zientifikotik, enpresa pribatutik eta administrazio publikotik etor daitezke, besteak beste.

Era berean, garrantzitsua da adituen ikuspuntua **administrazio publikoko funtzionario eta teknikarientz** uztartzea, haiek izango baitute batzarrak egindako gomendioei erantzuteko ardura.

Herritarren ezagutzari dagokionez, garrantzitsua da, halaber, bizipen-jakintzak izatea, batzarkideengandik berengandik edo batzarretik kanpoko pertsonengandik etor daitezkeenak, zeinek lekuko gisa diharduten. Pertsona horiek aldaketa klimatikoaren eraginei buruzko ebidentziak eta frogak emango dituzte, lehen pertsonan, bizitako esperientziaz abiatuta.

Une oro, batzarkideek jorratzen ari diren gaiei buruzko **informazio neutral eta orekatua** jasoko dutela bermatu nahi da.

Prozesu osoan zehar, batzarkideek aukera izan behar dute sortzen zaizkien **zalantzak argitzeko**, jasotzen eta asimilatzen duten informazioaren arabera. Horregatik, garrantzitsua da horretarako guneak prestatzea, bai bileretan, adibidez, informazio-erakusketa bakoitzaren ondoren edo proposamenak egiten diren bitartean, baita bileren arteko espazioetan ere, hala nola espazio birtualetan.

Era berean, oso garrantzitsua da bilera batetik bestera denbora izatea hausnarketarako eta ematen den informazioa barneratzeko.

Azkenik, batzarkideen irisgarritasuna eta informazioaren ulergarritasuna bermatzeko, **edukien kudeatzailearen rola eta/edo kazetari zientifiko bat** izatea gomendatzen da, zeinak informazioa ordenatzen eta zabaltzen lagun dezakeen, edukien aurkezpenean berrikuntzak eginez.

8. Nola egiten dira gomendioak?

Gomendioak egiteko, proposamen multzo zabal batekin hasten da, eta, ondoren, proposamen horiek mugatu egingo dira; azkenean, batzarraren gomendio gisa bozkatuko diren proposamenetara iritsiko.

Klimari buruzko Herritarren Batzarraren kasuan, gomendioak behetik gora egin ziren, hau da, Bizitza Arlo bakoitzeko proposatutako ideia-jasa batekin hasi ziren. Horrela, batzarkide guztiek aukera izan zuten klima-aldaketaren aurkako borrokari buruz zituzten eskaerak azaltzeko. Ondoren, proposamen horiek helburuaren arabera sailkatu ziren. Modu horretan, herritarrei eragiten dien eta axola dien gai zehatzetatik abiatu, eta proposamen horiek zer helbururi erantzuten dioten pentsatzen da.

Ondoren, proposamenen arteko balizko gainjartzeak edo osagarritasunak identifikatzeko prozesua dator, horiek taldekatzeko helburuarekin, baina baita proposamenak aberasteko ere. Garrantzitsua da fase honetan adituen zeregina: erronkak definitzen dituzte, neurriak kontrastatzeko.

Lantaldeen arteko **berrelikadura** bermatu behar da, bai eta **batzarkide guztiek garatu diren proposamenetara sarbidea izatea** ere, pertsona guztiek proposamen guztiak ezagut ditzaten, eta horiek hobetzeko ezagutzak edo ideiak eman ditzaten. Pertsona bakoitzak problematikaren eta eraginen pertzepzio desberdina du, eta parte-hartzaileen pertzepzioen efektu multieskalarrak proposamenak aberasten laguntzen du. Horretarako, informazioa partekatzeko baliabide birtualak erabil daitezke.

Adituen laguntzarekin, posible da identifikatzen saiatzea zein proposamen landu diren dagoeneko tresna arauemaileren batekin, eta, halakorik izanez gero, proposamen zehatz horrekin zer bilatzen den findu daiteke, dagoena hobetzea edo, nolana ere, baztertzea ekar baitezake. Gerta daiteke, halaber, agenda politikoan dauden proposamenak egotea; horrela, batzarrak berretsi egin dezake horiek ezartzeko beharra.

Proposamenetan identifikatu behar da **zer eragileri** zuzenduta dauden, proposamena kompetentzien arabera doitu ahal izateko. Ildo horretan,

administrazio publikoko teknikariek eta/edo funtzionarioek aditu gisa parte hartzeak lantaldeei lagundu diezaieke, haien eskumenen arabera proposamenak egokiak diren egiaztatzen.

Estatu mailan egin zen **Klimari buruzko Herritarren Batzarraren** kasuan, gomendioak egiteko proposamenak iragazteko modu bat hau aztertzea izan zen: ea **klima-aldaketara egokitzen eta/edo hura arintzen laguntzen zuten, eta ea bidezko trantsizioan laguntzen zuten**. Horrela, batzarraren agindutik oso urrun zeuden proposamenak baztertu ziren.

Gomendioetan helburu kuantitatiboak txertatzeari dagokionez, hori herritarrekin lantzeko alderdi konplexua da, adituen ezagutza behar baita; beraz, uste dugu ez dela ezinbestekoa gomendioetan helburuak txertatzea. Ildo horretan, Estatuko batzarrean ez ziren helburuak kontuan hartu, eta eztabaidan arreta handiago eman zitzaien "nola" galderari, "zenbat" galderari baino.

Gomendioak egiteko fasean, adituen zeregina da proposamenak egiten eta zalantzak argitzen laguntzea, baldin eta berariaz eskatzen bazaie, eta ez dute proposamenik egin behar.

9. Nola adosten dira gomendioak?

Gomendioak adosteko, erabakiak hartzeko sistema bat eduki behar da, eta sistema hori batzarkideek ezagutu eta berretsi behar dute.

Klimari buruzko Herritarren Batzarraren kasuan, metodoa gobernantza-organoak proposatu zuen, eta 3. bileran eztabaidatu eta onartu zen, baina 4. saioan hobetu egin zen, bozketa-sisteman abstentzioak hartzeko moduari buruzko eztabaidaren ondorioz. Honako fase hauek barne hartzen ditu:

1. Proposamena aurkeztea
2. Proposamena argitzeko galderak eta erantzunak
3. Proposamenari ekarpenak edo hobekuntzak egitea: ekarpenei buruzko galdeketa
4. Proposamena birformulatzea, aztertutako ekarpenak kontuan hartuta
5. Adostasun-mailarako bozketa.

Era berean, azken proposamenetan horien adostasun-maila islatzea erabaki zen, eta sinkronia lehenetsi zen: erabakiak jende guztia presente dagoen bileretan hartzen dira.

Erabakiak hartzeko metodo gisa, **gehiengo soilez bozkatzea** erabaki zen, hau da, erabaki bat hartzeko oinarria gehiengoaren iritzia da, arau hauek gogoan hartuta:

- Pertsonak BAI edo EZ bozkatu dezakete, edo abstenitu egin daitezke.
- Bozketa gehiengo sinplera (erdia gehi bat) iritsi den zenbatzeko, BAI edo EZ boto guztien artean BAI botoak zenbatuko dira. Ehuneko hori % 50 baino altuagoa bada, proposamena onartutzat joko da.
- Abstentzioak kontuan hartzen dira bozketa bakoitzaren quoruma ezagutzeko:
 - 5. bileran baliozkotzeko galdeketa % 30etik gorako abstentzioa duen proposamen bakoitza hura proposatu duen Bizitza eta Gizarte Arloak berrikusiko du, Klimari buruzko Herritarren Batzar osoak berriro bozkatu ahal izateko. Abstentzioen eta «EZ» bozketen arrazoiak jasoko dira, proposamena birformulatu ahal izateko, horretarako argudioak kontuan hartuta.

- 6. bileraren azken bozketan % 30etik gorako abstentzioa duten proposamenak onartzeko, gutxienez % 66 Baiezko boto izan beharko dituzte. Hori da 6. bileran adostutako azken proposamena; izan ere, aurreko saio batean erabaki baitzen % 30etik gorako abstentzioa zuten proposamenek Baiezko botoen % 75 lortu beharko zutela onartuak izateko.

Bozketa txartel fisikoen eta boto-ontzien bidez egin daiteke, baina beste bozketa-modu batzuk ere erabil daitezke, bitarteko birtualen bidez.

10. Nola bermatzen da batzarkideen irisgarritasuna, inklusioa eta ongizatea?

Parte-hartzaileen **irisgarritasuna, inklusioa eta ongizatea** funtsezko elementuak dira batzar-prozesuaren arrakastari laguntzeko, batzarraren parte-hartzea eta barne-demokrazia ahalbidetzen duten ezinbesteko alderdiak baitira. Horrela, inklusio horizontalaren maila handiagoa lortzen da, eta horrek prozesuaren kalitate handiagoa eta azken gomendioak egitea dakar, baita parte-hartzaileen ikaskuntza eta ongizatea ere.

Parte-hartzaile guztien irisgarritasuna eta inklusioa bermatzeko partaidetza-prozesu baten garapena gidatu behar duten **balioak eta printzipioak** honako hauek dira: aukera-berdintasuna, eta horrekin lotuta dauden integrazio eta justizia soziala, giza eskubideak, ordezkagarritasuna, genero-ikuspegia, ekitatea eta parekidetasuna.

Printzipio horiez gain, partaidetza inklusiboa bermatu behar da generoaren, gizartearen, belaunaldien eta aniztasunaren ikuspegitik, eta arreta berezia jarri behar da botere-harremanetan, bai talde barrukoetan, bai gizarte osoak zeharkatzen dituzten egituretakoetan.

Irisgarritasuneko eta inklusioko neurri eta prozedura horiek aplikatzeko, honako ekintza hauek burutu behar dira:

1. Identifikatzea zer muga eta oztopok eragiten dien parte-hartze demokratikoari, irisgarritasunari eta partaidetzak horizontalki sartzeari.
2. Parte hartzeko aukeretan dauden desberdintasunak ezabatzeko edo arintzeko neurriak ezartzea.
3. Parte hartzearen etengabeko ebaluazioa.

Jarraian, parte hartzaileen irisgarritasuna, inklusioa eta ongizatea bermatzeko garatu beharreko zenbait neurri adierazten dira:

- › **Konfiantza eta legitimitatea eraikitzea:** Funtsezko alderdia da, zeinak parte-hartzaileen ongizateari lagunduko dion eta prozesuaren garapena hobetuko duen. Horretarako, garrantzitsua da erraztaile eta aditu talde anitza izatea, lurralde, hizkuntza, azentu eta azal-kolore desberdinetako pertsonak osatua, hartara, batzarraren aniztasunarekin konektatu ahal izateko. Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat hurbiltasuna da, hau da, batzarkideei arreta emateko prest egotea, prozesuari buruzko

zalantzak edo haien parte-hartzeari eragiten dioten bestelako arazoak dituztenean. Ildo horretan, garrantzitsua da eskuragarri egotea ez ezik, telefono-deien bidez proaktiboak izatea ere, arreta behar duten arazoak daudela jakinez gero.

- » **Espazio fisikoaren irisgarritasuna:** Espazio fisikoa irisgarria dela bermatu behar da, mugikortasun murriztua eta mugikortasunarekin lotutako beste premia batzuk dituzten pertsonen baldintza berdinetan parte hartzeko aukera izan dezaten. Bileretara joatearekin lotutako joan-etorri guztietan ere bermatu behar dira irisgarritasun-baldintzak: joan-etorriak, ostatua, bazkaltzeko lekua, eta abar. Lehentasuna eman behar zaio tokien arteko hurbiltasunari, haiek aukeratzekoan.
- » **Materialen eta edukien eskuragarritasuna:** Materialak egokitu egin behar dira, parte-hartzaileek hobeto uler ditzaten, eta, gainera, dibertsitate funtzionaleko egoerei edo irisgarritasun kognitiboko beharrei erantzun behar zaie. Materialek eta edukiek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

 - Luzera egokia, bilera bakoitzerako aurreikusitako denbora kontuan hartuta. Era berean, parte-hartzaileen aniztasuna kontuan hartuta, edukiak ulertzen lagundu behar da.
 - Parte hartzeko hainbat modu (ahozkoa, ikusizkoa, idatzizkoa) dituzten materialak erabiltzea.
 - Eduki eta hizkuntza egokiak eta parte-hartzaileen aniztasunera egokituak; ikus-entzunezko materialek eta irudiek azpigituluak edo transkripzioak izan ditzakete, entzuteko eta ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat.
- » **Irisgarritasun informatikoa:** Bilera birtualak eginez gero, beharrezkoa da parte hartzaileen irisgarritasun informatikoa bermatzea. Horrela, informatika-irisgarritasunaren zailtasunak identifikatu ondoren, ezinbestekoa da batzarrean parte hartzeko beharrezko ekipamendu informatikoa behar duten pertsonen eskura jartzea, bai eta eten digitala duten pertsonen arreta ematea ere, gerta daitezkeen arazo teknikoak konpontzeko laguntza jarraituaren bidez.

Horretarako, laguntza tekniko iraunkorra eduki daiteke bilerak egingo diren hilabete guztietan, parte hartzaileei online edo telefono bidez aholkuak emateko eta zalantzak eta gorabeherak argitzeko. Pertsona hori bilerak egiten diren bitartean ere prest egongo litzateke era guztietako kasuistikei erantzuteko:

konexioarekin, audioarekin edo bideoarekin arazoak, saioan zehar lan-tresna digitaletara sartzeko arazoak (hala nola galdeketa- edo bozketa-tresnak), etab.

Gainera, batzarra hasi aurretik tailer bat eskain daiteke, parte-hartze birtualerako funtsezkoak diren gai batzuk lantzeko. Halaber, bilera bakoitzaren hasiera egokia bermatzeko, saioa hasi aurreko ongi-etorri-denboran bideo- eta audio-proba bat egitea gomendatzen da, hasi aurretik gorabeherak konpondu ahal izateko, online gela tekniko batean edo telefono bidez.

- **Hizkuntza-laguntza:** Hizkuntza-aniztasuna kontuan hartuta, beharrezkoa izan daiteke erraztaile taldeak edo itzultzaile profesionalek zenbait hizkuntzatako itzulpena egitea.
- **Inklusioa tailerretan:** Aukera-berdintasuna kontuan hartu behar da pertsona desberdinei buruz hitz egitean. Horretarako, gehienez ere 10 laguneko talde txikietan lan egitea iradokitzen da; era berean, talde horietan batzarraren aniztasuna islatzea ere gomendatzen da, eta erraztaileak esku hartzeko denborak kontrolatu behar ditu, berdintasunezko parte-hartzea bermatzeko. Halaber, parte hartzeko hainbat modu (ahozkoa, ikusizkoa, idatzizkoa) erabili beharko lirateke, eta denbora edo pertsona bakoitzak parte hartzeko duen aukera berdintasunez banatzeko teknikak erabili beharko lirateke.
- **Inklusioa edukietan eta materialetan:** Sortzen diren dokumentuek hizkuntza inklusiboa eta biztanleriaren aniztasuna erakusten duten irudiak erabili behar dituzte, hartara, estereotipo diskriminatzaileak eta gizarte-desberdintasuna bultzatzen duten rolak aldatzen laguntzeko.
- **Klima-aldaketari buruzko informazioaren eragin emozionalari buruzko gogoeta:** klima-aldaketaren dimentsio emozionala kontuan hartu behar da diseinuan eta parte hartzaileen jarraipenean. Saiotan behaketa-taulak eduki daitezke; taula horietan, erraztaileek adieraziko dute saioak nola funtzionatu duen parte-hartzeari edo alderdi emozionalari dagokienez, eta, beharrezkoa bada, zuzenean hitz egin edo telefonoz deituko diete behar duten pertsonari. Halaber, garrantziak da erraztaileak taldeko atmosferarekin lotutako gaitasun espezifikoetan trebatzea.

11. Nola ematen dugu Batzarreko prozesuen emaitzen berri?

Garrantzitsua da klimaren inguruko herritarren batzarraren komunikazioa eta zabalkundea; ez bakarrik emaitzena, baita prozesuarena ere, herritarrengan itxaropena eta sentsibiltatea sortzeko helburuarekin.

Hala ere, interes-gatazka sor daiteke gardentasunaren mesedetan prozesua ezagutaraztearen eta batzarkideen konfidentziasunaren artean.

Estatu-mailan egin zen **Klimari buruzko Herritarren Batzarraren** kasuan, hasiera-hasieratik ziurtatu zen parte-hartzaileen konfidentziasuna eta anonimotasuna, batzarraren eztabaida-prozesuaren independentzia, neutraltasuna eta objektibotasuna babesteko, eta batzarkideek beren eginkizuna askatasunez eta independentziaz bete ahal izatea ziurtatzeko, bai eta prozesu osoan zehar haien babesa eta pribatutasuna bermatzeko ere. Batzarkideak ez zioten anonimoak izateari utzi gomendioak aurkeztu arte, eta, orduan, borondatez egin zuten.

Horren eraginez eztabaida-prozesuan eta gomendioak egiteko prozesuan batzarrak ikusgarritasun handiagoa izateko helburua kaltetu zen. Interesgarria da pribatutasuna mantentzeko eta, aldi berean, zabalkundea lortzeko formula bat aurkitzea.

Bestalde, batzarraren ikusgarritasuna ere, Gidaren hasieran itzuliz, planteatzen den dilemaren araberakoa da. Batzarra ez bada sortzen herritarrek ezagutzen duten dilema espezifiko batetik, non gatazka-motaren bat egon daitekeen, ikusgarritasun txikiagoa izango du.

Edonola ere, garrantzitsua da batzarrak publiko handiarekin konektatzea, komunikabide publikoen bidez, baina baita batzarrean sortzen den informazioarekin gara daitezkeen parte hartzeko beste gune batzuen bidez ere.

12. Nola egiten dugu Batzarreko prozesuen eta pertsonen jarraipena?

Zer helburu ditu Klimari buruzko Herritarren Batzar batek? atalean azaldu dugun bezala, herritarren batzarrak ez ditu emaitzak soilik kontuan hartzen, hau da, eragileei ematen zaizkien gomendioak; **prozesua** eta parte hartzen duten **pertsonak** ere hartzen dira kontuan.

Illo horretatik, batzarra eragin handiko bizi-esperientzia bat izan daiteke parte hartzaile batzuentzako, eta, haren amaieran, konpromiso eta itxaropen handia izan dezakete, klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen jarraitzeko.

Horregatik, garrantzitsua da batzarraren ondoren **prozesuaren jarraipena egiteko mekanismoren** bat izatea, lanean jarraitu nahi duten batzarkideei laguntza eskaini ahal izateko, eta modu antolatu eta koherentean lan egiteko aukera izan dezaten. Horrela, ez dugu pertsonengan frustrazioa sortuko, zeinak batzarrak iraun duen bitartean ahaldundu diren, eta prozesuaren amaieran kausari ekarpenak egiten jarraitzeko aukerarik aurkitzen ez duten.

Estatu-mailan egin zen Klimari buruzko Herritarren Batzarraren kasuan, laguntza horrek batzarraren azken saioa egin eta sei hilabete igaro arte iraun zuen, eta laguntza-talde baten bidez eman zen. Alde batetik, batzarkideei lagundu zitzairen gomendioak identifikatutako eragileei ematen (Gobernua, Parlamentua, Autonomia Erkidegoak, Sindikatuak, Hirugarren Sektorea, Enpresak...), eta, bestetik, elkarre bat osatzen lagundu zitzairen, klima-aldaketaren aurkako borrokan lanean jarraitzeko euskarria emango zien formula juridiko bat izan zezaten.

13. Nola erraztu Klimari buruzko herritarren batzar bat?

Zer da Erraztea?

IIFACEren (Errazte eta Aldaketa Institutua) arabera, taldeak Errazteak zenbait trebetasun, teknika eta tresna biltzen ditu, haien bidez talde-prozesuak eta prozesu pertsonalak behar bezala garatzeko baldintzak sortzeko; bai helburuak lortzeko eta ikuspegia gauzatzeko, baita harreman-giroa sortzeko era, eta, giro horretan, konfiantza eta komunikazio arina, enpatikoa eta zintzoa izango dira nagusi.

Illo horretan, erraztasunak **talde-lanaren hiru oinarriak** zaindu behar ditu, hau da, prozesua, pertsonak eta helburuak zaindu behar ditu.

TALDE-LANAREN HIRU OINARRIAK



- **Helburuak zaintzea:** helburuek osatzen dute taldeak lortu nahi duen **emaitza**, Klimari buruzko Herritarren Batzarren kasuan, lortu behar diren **gomendioak**, Batzarraren agindutik eratorritakoak, dira emaitza hori. Errazteak taldeari laguntzen dio elkarrekin bideratzen eta helburuak ahalik eta modurik egokienean lortzen.

- **Prozesua zaintzea: prozesuak** oso garrantzitsuak dira; izan ere, haiei esker, helburuak lortzea ez ezik, pertsonek bide hori behar bezala eta eraginkortasunez bizitzea eta talde-adimena indartzea ere lortu daiteke. Erraztetik abiatuta, prozesua funtsezko elementu gisa diseinatu behar da, taldeak bere helburuak lortu ahal izateko.

Prozesuak etapa desberdinak izan ditzake, helburu desberdinekin. Adibidez, Klimari buruzko Herritarren Batzar baten kasuan, prozesuaren etapak Fase hauei dagozkie:

- Ikasketa eta ezagutza
- Hausnarketa eta eztabaida
- Gomendioak egitea
- Gomendioak hartzeko erabakiak hartzea

Etap horietako bakoitzak berariazko teknika eta tresna izango ditu, etapa bakoitzean planteatzen diren helburuak lortzeko.

- **Pertsonen zaintza:** hirugarren oinarri nagusia **pertsonak** dira. Taldeak pertsonek osatzen dituzte, eta horiek izaki konplexuak dira, bizitako esperientziez eta haien arteko harremanez beteak. Oinarri hori da konplexutasun handiena duena eta, aldi berean, funtsezko garrantzia duena. Erraztetik, taldeei lagundu behar diegu pertsonen beharrak eta banakako desberdintasunak babesten eta ahots-aniztasuna entzuten. Pertsonak zaintzeak norberaren eta taldearen espazioen arteko oreka bilatzea ahalbidetzen du, norbanakoen muga pertsonalak identifikatuz eta errespetatuz.

Zer funtzio ditu errazteak klimari buruzko herritarren batzar batean?

Klimari buruzko herritarren batzar batean errazteak funtzio hauek ditu:

1. Talde-espazio bakoitzerako prozesua, teknikak eta tresnak xehetasunez diseinatzea, adostutako helburuak eta emaitzak lortzen laguntzeko.
2. Giro gogobetegarria sor dadin bultzatzea.
3. Taldea emaitza erabilgarri eta egokietara bideratzea.
4. Gatazkak prebenitzea eta eraldatzea.
5. Taldean ekitatea eta botere-oreka bermatzea.
6. Inplikaturako pertsonen parte-hartzea eta konpromisoa sustatzea.

Zer trebetasun behar dira klimari buruzko herritarren batzar bat errazteko?

Jarraian, erraztasunaren zenbait trebetasun zerrendatuko dira ¹:

- Atmosfera segurua eta talde-kohesioa sortzea. Gomendio batzuk:
 - Pertsonak parte hartzera gonbidatzea eta bakoitzaren ekarpenetarako lekua ematea.
 - Pertsonen komunikatzen laguntzea.
 - Bakoitzaren parte-hartzea eta ekarpenak eskertzea.
 - Taldean sinestea eta jarrera positiboa izatea. Ez utzi taldea bakarrik.
 - Norberaren akatsak onartzea eta zuzentzea.
 - Umore-sena lantzea.

1. «Introducción a la facilitación de procesos», I. Modulua, Taldeak Errazteko Urteko Oinarrizko Ikastaroa. Altekio, 202

- Komunikazio-trebetasunak erabiltzea. Gomendio batzuk:
 - Arretaz entzutea, eta komunikazio-kanaletan seinaleak irakurtzea.
 - Testuinguruan kokatzea eta parafraseatzea, une egokietan modu argi, zehatz eta antolatuan.
 - Metakomunikatzen ikastea.
 - Ideiak taldekatu eta laburtzea.
 - Feedback enpatikoa ematea.

- Edukitik urruntzea eta norberaren ikuspuntua etetea. Gomendio batzuk:
 - Gaiari eta ekarpeni buruzko jakin-mina mantentzea.
 - Gaiari buruz dudan barne-aniztasuna onartzea.
 - Kontziente izatea zer balio, emaitza edo ezaugarriekin identifikatu ohi zaren gehiagotan eta zerekin ez, eta haiekiko arintasuna eta umorea sortzea.
 - Jarrera desberdinekin enpatia izatea.
 - Fisikoki mugitzea, iritzi desberdinak dituzten pertsonengandik hurbil egoteko.

- Emozio pertsonalak eta taldekoak identifikatzea eta kudeatzea, eta gatazkei erraztasunez aurre egitea. Gomendio batzuk:
 - Pertsonen hitzik gabeko eta hitzezko hizkuntza behatzea.
 - Taldeko interakzioak behatzea.
 - Norberaren emozioak ezagutzea.
 - Talde-atmosfera identifikatzea.
 - Norberaren mugak ezagutzea.
 - Barne-malgutasuna eta pazientzia lantzea.
 - Erresistentzia fisikoa izatea.

- Pertsona espezifikoen aurkako erasorik dagoen ikustea.
 - Pertsonengandik, haien kulturatik eta testuinguru sozialetik ikasteko borondatea.
- » Prozesua diseinatzea, eta jakitea planari noiz uko egin eta egoerak eskatzen duenera egokitu. Gomendio batzuk:
- Ideiak lotzeko eta kontzeptuak erlazionatzeko gai izango den pentsamendu sortzailea sustatzea.
 - Hainbat teknika eta metodologia ezagutzea.
 - Oroimen ona izatea.
 - Pertsona guztiengandik zerbait ikas daitekeela ikustea.
 - Talde-prozesurako jakinduria ematen duten taldeko pertsonen ekarpenak ospatzea.
 - Plan aldaketa bat dagoenean taldeko feedbacka entzutea.
 - Ikasteko espiritua eta jardunbide egokiarekiko konpromisoa lantzea.

14. Zer teknika eta tresna daude Klimari Buruzko Herritarren batzar bat errazteko?

Klimari buruzko Herritarren Batzar baten elkarrizketa eta parte-hartzea errazteko teknikak

Klimari buruzko Herritarren Batzarra errazte aldera, ezinbestekoa da parte hartzaileen hausnarketa eta eztabaida sustatzea, klima-aldaketari aurre egiteko herritarrak laguntzeko prest dauden neurriei buruz. Alde horretatik, **elkarrizketa** sustatzeko oso baliagarria da **parte-hartzea** sustatzen duten teknikak erabiltzea.

Teknika horiek erabiltzeak parte-hartze orekatua izatea errazten du, hau da, ahalik eta iritzi-aniztasun handiena adieraztea eta komunikatzeko estilo eta erritmo desberdinak kontuan hartzea. Hitzza pertsona bakarrak hartzea saihesten da, bai eta iritzia eman nahi izan arren ematen ez duten pertsonak egotea ere.

Taldearen tamaina funtsezko aldagaia da parte-hartzean. Talde handienetan parte-hartzea nabarmen jaisten da; talde txiki batean errazagoa da hitz egitea, pertsona bakoitzarentzako denbora gehiago dagoelako eta errazagoa delako parte hartzerakoan beldur eta tentsioei irtenbidea aurkitzea. Talde handi batean parte-hartze maila ona mantendu ahal izateko, azpitaldetan bana daiteke².

Illo horretan, maila desberdinetan eta teknika desberdinekin lan egitea gomendatzen da:

- **Pertsonala:** maila indibidualeko lan bat da, eta bertan alde zurreko hausnarketa bat egiten da; parte hartzaile bakoitzak isilik pentsatzen ditu gaiari buruzko ideia batzuk, denbora jakin batean (normalean laburra, 1 eta 5 minutu bitartean), eta orri edo ohar autoitsaskor batean idazten ditu.
- **Azpi-taldeak:** Estatuko Klimari buruzko Herritarren Batzarraren kasuan, 100 batzarkideek 10 pertsonako talde egonkorretan lan egin dute Bileretan zehar, bi talde bizi-taldea-erlo bakoitzeko, guztira

2. «Grupos inteligentes», F. Cembranos eta J.A. Medina, Ed. Popular, Madril 2003

10 lantalde (1etik 10era bitarteko Taldeak). Horietako bakoitza Batzarraren hautaketa-irizpide berberen arabera osatu da, hau da, Espainiako biztanleriaren egituraren aniztasuna eta ordezkagarritasuna kontuan hartuta, eta, beraz, talde bakoitzak "Espainia txiki" bat ordezkatzeko zuten.

10 eta 20ko taldeetan banatzearen ondorioz elkarrizketak, proposamenak eta akordioak lortzea 100eko osoko bilkuran baino arinago egin dira; horrela, Batzarreko pertsona guztiek ekarpenak egiteko aukera izan dute, eta elkarreraginaren eskutik pentsatzea ahalbidetu da.

Halaber, 10 eta 20ko taldeen arteko truke-uneak ere izan dira, eta, horiei esker, pertsona guztiek BGA guztien proposamenak ezagutu eta ekarpenak egin ahal izan dituzte, edozein taldetan zeudela ere.

- **Osoko bilkura:** osoko bilkuran eztabaidak egin dira taldeek egindako lana aurkezteko. Osoko bilkura batean hainbat teknika erabil daitezke:
 - **Erronda:** errondan, denek hitz egiten dute behin, norbaitek bi aldiz hitz egin aurretik.
 - **Hitz egiteko txanda:** hitz egin nahi duen pertsonak hitza eskatzen du eskua altxatuz edo adostutako beste mekanismo baten bidez.

Klimari buruzko Herritarren Batzar baten Faseetan laguntzeko teknikak

Klimari buruzko Herritarren Batzarraren prozesuaren **faseetan** laguntzeko zenbait **teknika eta tresna** proposatzen dira.

Prozesuaren unearen arabera erabiliko diren tekniken erremintakutxa bat aurkezten da. Horietako batzuk beharrezkoak direnean bakarrik erabiliko dira, Batzarra prozesu bizia baita.

Eranskinetan fitxa bat erantsi da, faseetan laguntzeko tekniken eskema orokorrarekin.

IKASKETA ETA EZAGUTZA FASEA

Fase honetan, parte hartzaileak adituen ezagutzarekin harremanetan jartzen dira. Errazteak informazioa ulertzen eta ikaskuntza esanguratsua sortzen lagundu behar die pertsonari.

» Fasearen helburuak:

- Informazio orekatua eta teknikoa ematea, bai eta analisi kritikorako tresnak ere, klima-aldaketari buruzko datuei eta informazioari buruz.
- Batzarrean jorratu beharreko gai nagusiak aurkeztea.
- Klima-aldaketaren eraginei eta kausei buruzko ebidentziak eta frogak aurkeztea, gaiei eta egokitzeko eta arintzeko balizko neurriei dagokienez.

» Fase honetarako gomendatzen diren teknikak:

- **Adituen taldearen aurkezpenak:** adituen talde independenteak informazio orekatua eta neutrala emango du klima-aldaketaren kausei, ondorioei eta eraginei buruz.

Jarraian, klima-aldaketari buruzko hainbat eduki aurkeztuko ditugu, horiek fase honetan lantzea iradokitzen dugu. Espainiako estatuko Klimari buruzko Herritarren Batzarraren bideoak partekatuko dira, erreferentzia gisa eta erabil litekeen material gisa.

KLIMA-ALDAKETAREN HASTAPENAK, KAUSAK ETA ERAGINAK

- ▶ [Zer da klima-aldaketa? Zer prozesu eta eragilek eragiten dute?](#) Isabel Moreno.
- ▶ [Zer kausa ditu klima-aldaketak?](#) Fernando Valladares.
- ▶ [Zer eragin ditu sistema naturaletan eta giza sistemetan?](#) José Manuel Moreno.

KLIMA-AGERTOKIAK

- ▶ [Zer dira klima-agertokiak? Ikuspegi orokorra.](#) José Manuel Gutiérrez.
- ▶ [Espainiako klima-proiektuak.](#) Beatriz Hervella.

EGOKITZEA ETA ARINTZEA

- ▶ [Klima-aldaketara egokitzea.](#) Francisco Heras.
- ▶ [Klima-aldaketa arintzea.](#) Marta Torres.

KLIMA-ALDAKETAREN ARLOKO NAZIOARTEKO TRATATUAK ETA KONPROMISOAK

- ▶ Nazioarteko tratatuak Ana Barreira.
- ▶ Klima-aldaketaren aurkako konpromisoak eta borroka-esparrua Espainian, Valvanera Ulargui.

KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINAK

- ▶ Klima-aldaketaren eraginak mundu-mailako osasunean, María Neira González.
- ▶ Klima-Aldaketaren eragin nagusiak Espainiako herritarren osasunean, Cristina Linares.
- ▶ Klima-Aldaketaren eragin nagusiak Ekosistemetan, mundu-mailan eta estatu-mailan, Marta Múgica (Europarac Espainia).

ZAURGARRITASUNA ETA TRANTSIZIO GLOBAL BIDEZKOA

- ▶ Klima-aldaketarekiko zaurgarritasuna: generoa, adina, klase soziala eta jatorriaren arabera eraginak, Miriam C.Leirós (Teachers for Future).
- ▶ Trantsizio globala: soziala eta ekologikoa, Asunción Lera St. Clair.
- ▶ Bidezko trantsizioa, Joaquín Nieto.

KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO NEURRIAK

- ▶ PNIEC planaren panoramika, datu ekonomikoak eta enpleguari buruzkoak barne, Mikel González Eguino.
- ▶ Klima-aldaketa arintzeko ekintzak: komunitatea klimaren alde, Victor Viñuales.

EGOKITZEKO ETA KLIMA-ALDAKETAREN ARRISKUAK MURRIZTEKO ESTRATEGIAK

- ▶ PNACC Klima-Aldaketara Egokitzeko Plan Nazionala, MITECO.
- ▶ Kostaldea egokitzea, Iñigo Losada.
- ▶ Klima-aldaketara egokitzeko estrategiak: uraren kasua, Elena López Gunn.
- ▶ Industrian klima-aldaketara egokitzeko eta arriskuak murrizteko estrategiak, Cristina Rivero.

ZEHARKAKO GAIK

- ▶ Klima-arriskuak eta klima-aldaketara egokitzea: Espainian ere bai, Francisco Doblaz-Reyes.
- ▶ Ekonomia jasangarria eta karbono gutxikoa bultzatzeko pizgarri eta despizgarri ekonomikoak, Iñaki Arto y Xaquim Garcia.

- **Banakako hausnarketa:** azaldutako edukiei buruzko banakako hausnarketa ariketa.
- **Galderak eta erantzunak:** parte-hartzaileek galderak egiten dizkiete adituen eta lekukoen taldeari, jasotzen eta asimilatzen

duten informazioaren arabera sortzen zaizkien zalantzei buruz, eta haiek erantzunak ematen dituzte, bai saioan zehar, bai saioen artean, bideoen edo fact-sheet delakoen bidez. Bilera online bada, bideo-konferentziako tresnaren txataren bidez egin daitezke galderak, eta beste tresna digital batzuk ere badaude galderak egiteko, hala nola slido.

HAUSNARKETA ETA EZTABAIDA FASEA:

Hausnarketa- eta eztabaida-fasea eta ikaskuntza- eta ezagutza-prozesua batera doaz, eta gogoeta eta ezagutza kolektiboa sortzen laguntzen dute. Adituek eta lekukoek erakutsitako ezagutzei eta ebidentziei buruzko elkarrizketa- eta eztabaida-prozesua sustatzen da, ezagutzak finkatzeko eta zalantzak argitzeko.

Eztabaidaren helburua da jakinduria kolektiboa azalerratez eta elkarrekin sortzea, elkarrizketa, eztabaida eta esplorazioko prozesu dinamiko baten bidez, hartara, klima-aldaketarekin lotutako funtsezko alderdiak hobeto ulertzeko, ideiak eta proposamenak sortzeko eta etorkizunera begira proiektatzeko.

» **Fasearen helburuak:**

- Arazo global horri heltzeko premiari buruzko eztabaida sortzea.
- Nahi den etorkizunari buruzko ikuspegiak garatzea eta partekatzea.
- Gizartea eraldatzeko jarraibideak eta nahi den etorkizuna lortzeko ekintza-aukerak garatzea.

» **Fase honetarako gomendatzen diren teknikak:**

- **Taldeka hausnartzea:** gogoeta egin eta hausnarketa horiek partekatzen dira talde-lanaren bidez.

Hausnarketa eragiteko galdera batzuk:

- *Zer zalantza geratzen zaizkizu klima-aldaketari, horren kausei eta eraginei buruz? Zer alderdi ezagutu beharko zenituzke hobeto?*
- *Zer ardua, zalantza edo kezka dituzu arintzeari eta egokitzeari buruz?*
- *Zure ustez, zer irismen eta ondorio dituzte Nazioarteko Itunetan adostutako neurriek?*
- *Zer ari gara egiten Klima-Aldaketa arintzeko? Nahikoa iruditzen al zaizu? Zer gairi ematen zaio arreta gehien?*

- *Zer ari gara egiten Klima-Aldaketara egokitzeko? Nahikoa iruditzen al zaizu? Zer gairi ematen zaio arreta gehien?*

- **Foro irekia:** dinamika horrek klima-aldaketarekin ikuspegi pertsonalago batetik erlazionatzeko aukera ematen digu, horrela gaia hobeto ulertzeko. Gainera, barne-komunikazioa hobetzen du eta taldearen kohesioa indartzen du.

Sarrera gisa, lehen pertsonan emandako lekukotasunak erabil daitezke, hain zuzen ere, klima-aldaketak lurraldeko hainbat eragileren bizitzan duen eraginari buruzko testigantzak. Jarraian, Espainiako estatuko Klimari buruzko Herritarren Batzarraren lekukotza batzuk partekatzen ditugu.

- ▶ [1. Lekukotasun bideoa: Gazteen parte-hartzea klima-aldaketaren aurka.](#) Lara Padilla.
- ▶ [2. Lekukotasun bideoa: Migrazio klimatikoa.](#) Papalaye Seck
- ▶ [3. Lekukotasun bideoa: Klima-aldaketaren eraginak nekazaritzan.](#) Natalia Llorente Nosti.
- ▶ [4. Lekukotasun bideoa: Ikatzaz haratago, bizia eta enplegua daude meatze-arroetan.](#) Isabel Caboalles.
- ▶ [5. Lekukotasun bideoa: Nekazaritza, etengabe egokitzapenaren bizi-esperientzia.](#) Vicent Borrás.

Eztabaida sortzeko galderaren bat erabiltzea iradokitzen da, adibidez: *Nola bizi gara eta nola eragiten digu klima-aldaketak gure egunerokotasunean?*

Iritzia adierazteko 4 bide aurkezten dira: *1: Kezka, beldurra, haserrea, tristura, antsietatea; 2: Itxaropena, baikortasuna, konfiantza; 3: Deskonexioa, axolagabekeria; 4: Beste batzuk.*

- **Klima-agertokiak:** estatu-mailako zenbait klima-agertoki aztertzen dira, eta Espainiako estatuko lurraldeetan pertsonen bizitzan izandako eraginei buruz hitz egiten da.

Eztabaida sortzeko galdera bat erabiltzea iradokitzen da: *Nola imajinatzen ditut agertokiak (tenperatura eta prezipitazioa) bizi naizen lurraldean eta zer eragin jasan lezakete?*

- **Etorkizuneko Narratibak:** klima-aldaketaren aurkako borrokarako lider desberdinek hartutako egokitzapen-estrategiek eta arintze-bideek markatutako etorkizuneko hainbat agertoki ikertzen eta aztertzen dira.

Fikziozko lau istorio kontatzen dira; horietan, etorkizuneko hainbat eszenatoki eta ibilbide aztertzen dira, eta klima-aldaketari aurre egiteko zenbait neurri eta ekintza islatzen dira. Lantaldeak sortzen dira etorkizunak kontrastatzeko, eta horietako bakoitzaren elementu desiragarriak definitzen dira. Elementu horiek osatuko dute nahi den etorkizuneko agertokia.

GOMENDIOAK EGITEKO FASEA

Fase honetan, gomendio-proposamenak prestatu eta idazten dira, eta arloka edo gaika antolatutako parte hartzaileen taldeetan garatzen dira.

» Fasearen helburuak:

- Gomendio-proposamenak egitea.
- Berrelikadura-mekanismoak ezartzea, Batzarrean parte hartzen duten pertsona guztiek gomendioak ezagutu eta iradokizunak egiteko aukera izan dezaten.
- Batzarrak ezarritako printzipioak betetzen dituzten berrikustea.
- Proposamenen idazkerari eta kalitate teknikoari buruzko berrelikadura ematea, sistema politikoan eragina izan dezaten.

» Gomendioak egiteko prozesua:

- Proposamen-jasa.
- Proposamenak gaika taldekatzea.
- Hobetzea eta beste proposamen batzuk gehitzea.
- Helburuak lantzea.
- Proposamenak berrikustea.
- Gai berriak identifikatzea.
- Proposamen berriak gehitzea.
- Osoko bilkuran proposamenak aurkeztea.
- Printzipioak betetzen diren berrikustea.
- Proposamenak lehenestea.

- Gomendioak garatzea.
- Gomendioak berrelikatzea.
- Gomendioei buruzko galdeketa egitea.
- Gomendioak hobetzea.
- Politologoekin gomendioak berrikustea.
- Gomendioak bozkatzea.

GOMENDIOAK LANTZEKO PROZESUA



» Fase honetarako gomendatzen diren teknikak:

- **Ideia-jasa eta taldekatzea:** klima-aldaketaren aurrean Espainia seguruagoa eta bidezkoagoa lortzeko proposamen-sorta bat egitea. Ondoren, ideiak gaiaren arabera taldekatzen dira.

Galdera motibagarriak erabiltzea gomendatzen da:

- *Zer aldaketa egin beharko lirateke klima-aldaketaren kausetan eragiteko eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko?*
- *Zer aldaketa egin beharko lirateke klima-aldaketaren eraginak eta arriskuak saihesteko eta murrizteko?*

- **Proposamenak berrikustea eta hobetzea:** lehen ideia-jasatik abiatuta, gaien arabera multzokatutako proposamen horiek berrikusten dira, adituek eta lekukoek emandako ebidentziak eta frogak kontuan hartuta.

Proposamenak osatu eta hobetu egiten dira, proposamen berriak gehitzen dira beharrezkotzat jotzen bada, eta berriz gaika taldekatu behar diren aztertzen da.

Lan honetarako, adituen taldeak egindako galdera-sorta baliatuko da, zeinak informazioa sakontzen eta osatzen lagunduko duen:

- *Zuen ustez, interesgarria al da proposamenen bat gehitzea edo osatzea, lehendik dauden gaietan?*
- *Beharrezkoa al da proposamen berriak gehitzea identifikatu diren gai berrietan?*

- **Helburuak lantzea:** helburuak klima-aldaketaren aurkako borrokan lortu nahi ditugun xedeak dira. Gomendioen bidez Batzar gisa lortu nahi duguna irudikatzen dute. Gomendioek ekintza espezifikokoak identifikatzen dituzte: helburu horiek "nola" lortuko ditugun.

Helburuak honelakoak izan behar dira:

- Argiak eta zehatzak
- Neurgarriak: lortu daitekeen emaitza izateko moduan formulatuak.
- Errealistak: ikus daitezkeen prozesu errealei buruzkoak.

- **Proposamenek batzarraren printzipioak betetzen dituzten berrikustea:** proposamenak berrikusi behar dira, batzarrak ezarritako printzipioak betetzen diren ikusteko.

Horrela, printzipioak betetzen dituzten edo ez kontuan hartuta emango diegu lehenetsia proposamenei.

Klimari buruzko Herritarren Batzarraren kasuan, proposamenek bete beharko lituzketen printzipioak hauek dira: **klima-aldaketara egokitzen eta hura arintzen laguntzea, eta bidezko trantsizioan laguntzea.**

- **Gomendioak garatzea:** proposamenak lehenetsi ondoren, gomendioak garatzen dira, hau da, idatzi egiten dira. Horretarako, atal hauek landu behar dira:

- Gomendioaren izenburua.
- Zein helbururi laguntzen dion.
- Deskribapena.
- Justifikazioa:
 - Zer arazori erantzuten dion.
 - Herritarrek ematen dioten garrantzia. Zergatik iruditzen zaie garrantzitsua herritarrei?
 - Klima-aldaketara egokitzen edo hura arintzen laguntzen al du?
 - Trantsizio justuan laguntzen al du?
- Eragile erantzuleak eta inplikatuak

Eranskinetan, **gomendioak egiteko fitxa-eredu** bat erantsi da.

- **Philipps 6x6:** lantaldeen artean proposamenei **berrelikadura** sortzeko balio du.

6 pertsonako 6 talde osatzen dira, bakoitzak 6 minutuz hitz egiten du, eta, ondoren, taldeetako pertsonak aldatzen dira. Teknika hau egokitu egin daiteke, eta pertsona eta talde kopurua handitu. Klimari buruzko Herritarren Batzarrean, 10x10 Philipps erabili zen; 10 pertsonako hamar talde egin ziren, horrela, arlo bakoitzeko proposamenei buruz beste talde batzuetako partaideek zituzten ekarpenak jasotzeko.

ERABAKIAK HARTZEKO FASEA

Fase honetan gomendioen bozketa egiten da. Horretarako, aldez aurretik adostu behar da zein den batzarraren erabakiak hartzeko sistema.

Klimari buruzko Herritarren Batzarraren kasuan, bozketa erabili zen, gehiengo soilez.

Bozketa boto-txartelen eta boto-ontzien bidez edo tresna digitalen bidez egin daiteke.

Urrats hauek jarraitzea proposatzen da:

1. Proposamena aurkeztea.
2. Proposamena argitzeko galderak eta erantzunak.
3. Proposamenari ekarpenak edo hobekuntzak: ekarpenei buruzko galdeketa.
4. Proposamena birformulatzea, ekarpenei buruzko galdeketa kontuan hartuta.
5. Adostasun-mailarako bozketa.
6. Botoak zenbatzea.
7. Azken emaitzak aurkeztea.

› Fase honetarako gomendatzen diren teknikak:

- **Gomendioei buruzko galdeketa egitea:** gomendioen onarpen-maila ezagutzeko, egindako gomendioak aztertzen dira; horrela, parte-hartzaileen ekarpenak, iruzkinak eta iradokizunak jaso daitezke, horiek hobetzeko, eta azken bozketan ahalik eta babes handiena lortzeko.

Galdeketa tresna digitalen baten bidez egin daiteke, hala nola SurveyMonkey-ren bidez, edo semaforoaren teknikaren bidez, kolore gorri, hori edo berdeko eranskailuekin.

Galdeketaren emaitzak hauek izan daitezke:

- **Bai:** proposamena onartu da
 - **Ez:** ez da proposamena onartu
 - **Abstentzioa:** proposamena hobetu/birformulatu behar da.
Hori zehazteko aukera hauek daude:
 - Ez dut proposamena ulertzen.
 - Gehiago zehaztu behar dela uste dut.
 - Ez dator bat arintzearekin eta/edo egokitzearekin.
 - Ez dator bat bidezko bilakaerarekin.
 - Beste batzuk.
- **Gomendioak bozkatzea:** proposamen bakoitza bozkatzen da, eta aukera hauek daude:
- **Bai markatzea:** proposamena onartu da.
 - **Ez markatzea:** ez da proposamena onartu.
 - **Ezer ez markatzea:** abstentzioa.
 - Beste edozein aukera boto baliogabetzat joko da.

Tresna digitalak eta teknologikoak Klimari buruzko Herritarren Batzarra errazteko

Jarraian, saioetarako erabili beharreko tresna teknologikoak deskribatzen dira, batez ere saio birtualetarako tresnak.

› Bideokonferentziak egiteko tresnak:

- **Zoom:** saio birtualak zoom plataforma birtualaren bidez egin daitezke, hark duen gaitasunagatik. Gainera, hainbat tresna eta aplikazio ditu integratuta, zeinak erraztean erabiliko diren, eta horiek espazio berean daudenez, parte-hartzea erraztu eta sinplifikatuko da.

500 parte hartzaileara arte biltzeko gaitasuna du, eta elkarlanerako talde txikien aretoak sortzeko aukera. Bideokonferentziak, hitzaldiak eta workshop-ak egiteko aukera ematen du, pantaila partekatzeko funtzioaren bidez. Saioa grabatu daiteke, Youtube edo Facebook Live erabiliz streaming bidez eman daiteke eta bileraren audioa transkribatu daiteke. Bideoarekin batera txata izateko aukera ematen du, hartara, kezkei erantzun edo parte-hartzaileekin modu pribatuan hitz egiteko.

Online errazteko eta komunikatzeko erabiliko diren aplikazioetarako (Google Workspace, Slack, Slido, Miro, Mural) sarbide zuzena du plataforman bertan.

Telefono-dei bidez parte hartzeko aukera ematen du, eta horrek estaldura txikiko eremuetan parte hartzeko aukerak handitzen ditu, bai eta Internet erabiltzeko ohitura txikia duten pertsonen irisgarritasuna ere.

Urruneko laguntza ahalbidetzen du, bestelako programa gehigarrien beharrik gabe, eta hori abantaila da parte hartzaileei laguntza teknikoa emateko.

› Lankidetzarako tresnak:

- **Groupmap:** erabakiak lankidetzan hartzeko tresna bat da; haren bidez, parte hartzaileek ideiak modu eraginkorrean trukatu, emaitzak eztabaidatu eta irtenbiderik onena zein den erabaki dezakete. Emaitzei buruzko txostenak lortzeko aukera ematen du, erabakiaren kalitatea hobetzeko. Lehentasunak ezartzeko tresna ugari ditu.

- **Mural:** lankidetzari bisualerako eta arazoak konpontzeko espazio bat da, erraz erabil daitezkeen mihise digital bat duena. Errazte-funtzio sendoak eta metodo gidatuak ditu
- **Miro:** online lankidetzako arbela duen plataforma bat da, eta banatutako taldeei modu eraginkorrean elkarrekin lan egiteko aukera ematen die; espazio bat eskaintzen die ideiak atzemateko, esfortzurik gabe elkarrekin sortzeko eta elkarlanean aritzeko, elkarren ondoan lanean ariko balira bezala.

» **Galdeketak, inkestak eta bozketak egiteko tresnak:**

- **Mentimeter:** inkestak sortzeko sistema da; hainbat motatako galderak egiteko eta informazioa hainbat formatutan bildu eta aurkezteko aukera ematen du (bozketa, koordenatu-ardatzak, hitz-lainoa, armiarma-sarea, etab.). Ez da beharrezkoa erregistratzea.
- **Sli.do:** dinamikak bat-batean ebaluatzeko tresna da; erabakiak talde handietan hartzeko prozesua errazten du, modu sinkronikoan eta aldi berean. Lehentasunak erakusteko eta proposamenak lortutako balorazioaren arabera antolatzeko aukera ematen du. Sarbide erraza: mugikorraren bidez sarbide-kode batekin.

15. Bibliografia

› **Informe Final de la Asamblea Ciudadana para el Clima.**

Hemen eskuragarri: https://asambleaciudadanadelcambioclimatico.es/wp-content/uploads/2022/11/Informe-final_ACC_digital_creditos_alta.pdf

› **Innovative Citizen Participation and New Democratic Institutions: Catching the Deliberative Wave** © OCDE 2020

Hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.1787/339306da-en>

› **Gipuzkoako Herritarren Batzarraren webgunea.**

Hemen eskuragarri: https://www.gipuzkoa.eus/es/web/herritarrenbatzarra/que_es

› **Preparing for a climate assembly. Guidance for policy officials.**
KNOCA.

Hemen eskuragarri: https://knoca.eu/app/uploads/2022/06/Preparing_for_a_Climate_Assembly_report_v3.pdf

16. Eranskinak

KLIMARI BURUZKO HERRITARREN BATZARRAK ERRAZTEKO FITXA

KLIMARI BURUZKO HERRITARREN BATZAR BATEN FASEAK ETA LOTUTAKO TEKNIKAK



GOMENDIOAK EGITEKO FITXA

Proposamen zk.	
Proposamenaren izenburua:	
Zein helbururi laguntzen dio:	
Deskribapena:	
Justifikazioa:	<ul style="list-style-type: none">- Zer arazori erantzuten dio:- Herritarrek ematen dioten garrantzia: zergatik iruditzen zaie garrantzitsua herritarrei- Klima-aldaketara egokitzen edo hura arintzen laguntzen al du?- Trantsizio justuan laguntzen al du?
Eragile erantzuleak eta inplikatuak:	

ERRAZTEKO GIDA ETA BILERAREN ESKEMA

» Data eta ordutegia:

» Tokia:

» Tailerraren helburuak:

» Eginkizunak:

- **Aditua:** bildutako informazioa aurkeztuko du, proposamenetan sakondu ahal izateko. Adituak arduratzen dira justifikazioari eta eragileei buruzko informazioa ekartzeaz (hori errazteko, aktore posibleen kategoria batzuk egingo dira). Adituen lana da hausnartzen laguntzea, proposamenak justifikatzen laguntzea eta horiek antolatzea, proposamenak aurkezteko edo hobeto ulertzeko.
- **Erraztailea:** Elkarrizketa errazten du eta galderak egiten ditu, egiaztatzeko zer neurritan onartzen diren, edo ez, adituen iradokizunak, eta zer neurritan egiten diren proposamen berriak, informazio berria kontuan hartuta.

Ordua	Denbora	Edukia	Garapena eta metodologia	Arduradunak	Taldeen erraztaileak
10:00	05'	Inaugurazioa eta Ongietorria	Ongietorria: Ongietorrirako eta parte hartzaileei harrera egiteko hitz batzuk		
10:05	05'	Prozesu orokorra, bilera, helburua eta agenda aurkeztea	Aurkezpena: bilera, helburuak eta agenda aurkeztea. Prozesu orokorra aurkeztea. Materiala: PPT Espero den emaitza: harrera eta argitasuna jardunaldiaren helburuetan. Argitasuna metodologian.		
10:10	10'	■ HAUSNAR-KETA ETA EZTABAIDARAKO TARTEA Proposamenen aurrerapen-egoera aurkeztea	Proposamenen aurrerapen-egoera aurkeztea Osoko bilkuran: Espero den emaitza: Gaiaren egoerari buruzko gardentasuna eta argitasuna.		

Ordua	Denbora	Edukia	Garapena eta metodologia	Arduradunak	Taldeen erraztaileak
10:20	30'	<p>■ IKASKETA ETA EZAGUTZARAKO TARTEA</p> <p>Zeharkako gaiak aurkeztea</p>	<p><u>Zeharkako gaiak aurkeztea</u></p> <p>Osoko bilkura [20']:</p> <p>Galderak eta erantzunak [10']:</p> <p>Zoom-eko txataren bidez jasotzen dira galderak.</p>		
10:50	25'	<p>■ HAUSNAR-KETA ETA EZTABAI-DARAKO TARTEA</p> <p>BGA bakoitzeko proposamenen eta helburuen ikuspegi orokorra aurkeztea</p>	<p><u>BGA bakoitzeko proposamenen eta helburuen ikuspegi orokorra aurkeztea</u></p> <p>Osoko bilkuran (5') metodologia azalduko da</p> <p>Talde handietan</p> <p>Helburua:</p> <p>Metodologia:</p> <p>Materiala:</p> <p>Espero den emaitza:</p>		<p><u>Talde-lanaren dinamika</u></p> <p>Talde handietan:</p> <p>Metodologia:</p> <p>Tresna:</p>
11:15	45'	<p>■ PROPOSAMENAK SORTU ETA GARATZEKO TARTEA</p> <p>Helburu eta proposamenak berrikustea eta aberastea.</p>	<p><u>Proposamenak berrikustea eta aberastea</u></p> <p>Talde txikietan (5/10 perts.) [Guztira: 45']:</p> <p>Talde-lanaren helburuak:</p> <p>Metodologia:</p> <p>Espero den emaitza:</p>		<p><u>Talde-lanaren dinamika</u></p> <p>Talde txikietan: [Guztira: 45']</p> <p>Metodologia:</p> <p>Tresna:</p>
12:00	20'	Atsedena			

Ordua	Denbora	Edukia	Garapena eta metodologia	Arduradunak	Taldeen erraztaileak
12:20	95'	<p>■ PROPOSAMENAK SORTU ETA GARATZEKO TARTEA</p> <p>Proposamenen fitxak egitea</p>	<p><u>Proposamenen fitxak egitea</u></p> <p>Osoko bilkuran (5'): metodologia azalduko da</p> <p>Talde txikietan (5-10 perts.) (95'):</p> <p>Talde-lanaren helburuak:</p> <p>Metodologia:</p>		<p><u>Talde-lanaren dinamika</u></p> <p>Talde txikietan (5-10 perts.) [Guztira: 90']:</p> <p>Metodologia:</p> <p>Tresna:</p>
13:58	5'	<p>Egunaren Itxiera</p>	<p><u>Jardunaldia ixtea</u></p> <p>Jardunaldia ixteko hitzak</p>		
14:00		<p>Saioaren Amaiera</p>	<p><u>Saioaren Amaiera</u></p>		

LEGENDA:

- IKASKETA ETA EZAGUTZARAKO TARTEA
- HAUSNARKETA ETA EZTABAIDARAKO TARTEA
- PROPOSAMENAK SORTU ETA GARATZEKO TARTEA
- ERABAKIAK HARTZEKO TARTEA

